



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2008-04-16

VIURTEA 1.409.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Joxe Arregi eta Jose Luis Geresta plazen izenak aldatu ditu Udalak

MOZIOA Alderdi guztiek onartu zuten herenegun, «biktimen sentsibilitateari eraso egiten diotelako»

SALAKETA Ezker abertzaleak azaldu zuen erabaki horrek «tentsioa pizten» duela, eta «ez du inork irabazten» 6



Ezker abertzaleak deituta elkarretaratzea egin zuten ohiko bilkuraren aurretik. Tentsio uneak ere izan ziren. N.U.

Axun Aierbe Mendizabal euskaltzalea hil da

ALTZO Atzo hil zen 39 urterekin; Galtzaundi Euskara Taldeko sortzaileetakoa izan zen z



Erloja kendu zuteneko une bat, atzo. N. GARZIA

Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan hartuko du parte Hodeiertz abesbatzak

TOLOSA Asteburuan ariko dira Esloveniako Maribor herrian izango den lehiaketan; Europako Sari Nagusiaren barruan kokatzen da lehiaketa z

Udaletxeko erlojua kendu dute konpontzeko eta moldatzeko

LEITZA 1940. urte inguruan jarri zutenetik konponketarik egin gabe zegoen erlojua 7

Hodeiertz Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan ariko da Eslovenian

Tolosa » Bihar abiatuko dira Esloveniako Maribor herrira; Europako Sari Nagusiaren barruan sartu dute aurten lehiaketa hau. Hamar abesbatza lehiatuko dira bertan.

INIGO TERRADILLOS

Tolosako Hodeiertz abesbatzak 25 urte betetzen ditu aurten, eta hori dela eta, urte hau «era berezian ospatu» nahi dute abesbatzako kideek. Hainbat ekitalditan hartuko dute parte, eta horietako bat izango da asteburu honetan parte

hartuko duten lehiaketa, Eslovenian.

Bihar bertan abiatuko dira Tolosako abesbatzako kideak Esloveniara, hain zuzen ere, Maribor herrira bertan izango den Nazioarteko lehiaketa garrantzitsuan parte hartzera. Lehiaketa hau bereziki

garrantzitsua izango da tolosarrontzat, izan ere, Europako Sari Nagusiaren barruan sartu berri dute.

Hala, lehiaketa honetan ahalik eta maila onena erakusteko, azken hilabeteetan entsegutan murgilduta aritu dira tolosarrak. Badakite

maila handia izango dela bertan parte hartuko duten 10 abesbatzen artean, eta zaila izango dela postu ona lortzea, baina «gure lana ongi egitea izango da gure helburua».

Bestalde, 25 urteurrenaren harira, irailetik aurrera 25 urteetan abesbatzako kide izan direnkin kontzertu bat prestatzeari ekingo diotela azaldu dute Hodeiertz abesbatzekoek.

Juantxo Zeberio tolosar musikariaren gidaritzapean kaleratutako Umama2 diskoa ere aipatu nahi izan dute duen kalitateagatik, «jazz giroan murgiltzen gaitu»

«Ahalik eta hobekien egitea da garrantzitsuen»

ENRIQUE AZURZA » Hodeiertz abesbatzako zuzendaria

I. TERRADILLOS

Tolosako abesbatzako kideak oso gustura daude asteburuan lehiaketa honetan parte hartu behar dutelako. Horibai gogor aritu direla entseiatzen ere esan dute. Enrique Azurzak azaldu du Eslovenian dituzten helburuak zein diren.

Bihar bertan abiatuko zarete Eslovenia aldera. Guztia prest?

Azken sei hilabeteak entseguekin egon gara gogor lanean, irailen hasi ginen. Egitarau zaila, originala eta polita prestatu dugu, eta gustura gaude. Iragan larunbatean Santa Klara elizan eman genuen kontzertuan egin genuen proba modukoa, eta oso ondo ateratu zen. Gero egia da lehiaketan gauza bera



N. LATABURU

egiten saiatu behar dela, eta horurdurasunik eta izaten direla, baina ni behintzat oso pozik nago egin dugun lanarekin.

Nola hartu zenuten lehiaketa honetan parte hartzeko gonbita?

Parte hartzeko deitu gintuzten an-

tolatzaileek, abesbatza euskaldun baten bila zebiltzalako. Erroka handia zela bagenekien, baina oso pozik hartu genuen, maila handiko lehiaketa delako, eta goi mailako 10 abesbatza ariko direlako bertan.

Egitarau zaila bezain polita prestatu duzuela lehiaketarako esan duzu.

3 egitarau prestatu ditugu. Folklorean ere ariko gara, baina horiez da lehiaketarako izango. Larunbata goizean 3 pieza joko ditugu: esloveniar bat, erromantiko bat, Hori behartutako egitarauaren baitan. Arratsaldean, berriz, librean ariko gara, eta garaikidea izango da in-

terpretatuko duguna. 10 talde ariko gara larunbatean, eta hemendik 5 aukeratu dituzte igandeko finalerako. Horraine hiltzen bagara beste egitarau bat ere badugu prestatua; lehenengo pieza garaikidea izango da, bigarrena nire anaia David Azurzaren *Contemplado* izango da, eta hirugarrena, W. Hawleyren madrigal bat 12 ahotsentzat.

Zer espero duzue bertan egitea?
Guretzat garrantzitsuen ahal dugun hobekien egitea da, ondo abesatea, izan ere, badakigu oso zaila izango dela sari bat irabaztea, baina itzaropena ez dugu galduko. **25 urte bete ditu aurten Hodeiertz abesbatzak, zein balorazio egingo zenuke?**

Abesbatza oso ondo dago, geroz eta hobeto. Noski, asko aldatu da, eta onerako. Jende gaztea dago bertan, esperientzaduna, eta hori oso ona da. Oso soinu polita du, afinatua. Oso balorazio baikorra egin dut nik. Gauza ugari egin ditugu, bidaia, sari ugari eskuratu ditugu, obren estreinaldiak... Euskal musika zabaltzea izan da gure helburuetako bat, eta hori egin dugu, eta baita musika garaikidea ere. Hodeiertz abesbatzak duen herri mailan duen gizarte funtzioa ere aipatu behar da, izan ere, gazte asko igaro dira bertatik. Tolosa bezala herri batentzat harro egoteko modukoa da horrelako abesbatza bat izatea.

Axun Aierbe Mendizabal euskaltzalea hil da

Altzo » Galtzaundi Euskara Taldeko sortzaileetako izan zen; egun, EHUKo Gasteizko Fakultateko dekanordea zen.

ERREDAKZIOA

Axun Aierbe Mendizabal Galtzaundi Euskara Taldeko sortzaileetako eta lehendakari izandakoa hil zen atzo, garuneko odol isuri batez, Donostiako ospitaleko sendagileek azaldu bezala.

1968ko apirilaren 28an jaio zen Axun Aierbe Altzon. Tolosan egin zituen lehen ikasketak, eta ondoren, Deustun Unibertsitatean Euskal filologian lizentziatu zen. Ondoren, Hizkuntza Plangintzarako diploma eskuratu zuen Euskal



Axun Aierbe. WWW.EIZIE.ORG

Herriko Unibertsitatean, eta doktoretza tesina egin zuen administrazioari buruz.

15 urtez Ibarroka udaletxean

1987an Ibarroka udaletxean hasi zen lanean, hasieran itzultzaile eta liburuzain bezala, eta gerora itzultzaile eta euskara teknikaria izan zen. 2002. urtera arte egon zen lanean bertan. Geroztik, Euskal Herriko Unibertsitatean aritu da lanean irakasle bezala, Gasteizko Filologia eta Itzulpengintza fakultatean, Hizkuntzalaritza eta

Euskal Ikasketak sailean. Egun, Ikasle gaietarako eta Euskararako dekanordea zen.

Itzulpenaren esparruan berezitua

Itzulpenaren esparruan aritu izan zen batik bat lanean, eta hainbat sari irabazi zituen gainera. Felix Ugarte Itzulpen lehiaketan, esaterako, 2001ean, 2002an eta 2003an jaso zuen saria.

2006az geroztik Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreten Elkarte (EIZIE) bazkidea zen.

Galtzaundi Euskara Taldearen sortzaileetako

Galtzaundi Euskara Taldearen sortzaileetako izan zen Axun Aierbe Mendizabal, eta euskara elkartearen lehendabiziko lehendakaria ere bera izan zen. Hainbat urtez izan zuen berak kargu hori. Halaber, Galtzaundirekin batera Topagunearen (Euskara Elkarten Federazioa) sorreran ere parte hartu zuen.

Bere unibertsitateko lankideek azaldu dutenaren arabera, «oso

golpe gogorra izan da, joan den astean hemen ari zen lanean, beti bezala; langile porrokatua zen, beti alde batetik bestera aritzen zen, geratu gabe». Galtzaundiko bere kideek ere horrela gogoratzen dute, langile porrokatu bezala,

«euskalgintzan lan handia egin zuen».

Altzon jaio zen arren, Ibarra bizi izan ditu bizitzako urte gehienak, eta azken urteetan Gasteizekin eta Hendaiaarekin ere tartekatuta izan du Ibarra.

I Iritziak



■ **Martxelo Otamendi.** «Beti da penagarria ezagun eta lagun baten heriotza, baina Axunena are gehiago. Euskaltzale porrokatua eta nekazina. Ehunka ordu inbertitutakoa euskararen aldeko lanean. Gure herria euskalduntzea eta euskaltzalea izan behar da, eta hura beteta ikusi gabe, herio bihozka beak kendu digu. Axunekin euskalgintzan ibili garenok, zorretan geratu gara berarekin; lanean segitzea da zor hori kitatzeko modu bakarra. Zu gabe zailago izango da Axun amets hori betezea, baina ahaleginduko gara».

■ **Joxan Oiz Arruti.** «Ustekabe eta atsekabe ikaragarria. Orain, gaine-

ra, zail egingo zaigu bereizten trumoi entzun ote dugun ala, dagoen lekuan dagoela, Axunen barre-algararen oihartzuna aditu ote dugun. Animu eta besarkada bana familia eta lagunei».

■ **Marjie Manterola Iribar.** «Badoa ura badoa denbora lagunenez oroitzen guran geratu da. Adorez eta atseginez mintegikide ginen garaien ezagutu nuen. Ondoren Euskara Elkarte Topaguneari esaten zuten erburu-belarri ibili zen. Euskarari lotua beti. Atsegina, umore onekua eta hitz-jario errazekoa zen. Gazte hil da, gazteegi. Une samina hauetan besarkada bat familiari».

KEY-LAN
Sartailgintza

Nalana etorb. 11 behe - TOLOSA
Mag.: 678 41 79 22
Tel./Fax: 943 65 03 13



Irudian aurkezpen ekitaldia. Ezker-eskuin: Sabino Sanvicente, Iñaki Suarez, Anjel Irastorza, Jokin Bildarratz, Nerea Lupardo eta Javier Lomas. ESTI EZEIZA

Gipuzkoako informatika topaketa Tolosan da berriro hilabete honetan

Aisia » Apirilaren 25etik 27ra bitartean izango da; munduko sare azkarrenetako batez gozatu ahal izango da.

ESTI EZEIZA

Informatika zaleen Gipuzkoako jaialdirik handiena ospatuko da berriro hilabete honetan Tolosan. Hiru egunetan zehar, informatika, arte digitala, software libre eta bideo-jolasen inguruan 600 zaletu eta 400 ordenagailutik gora bilduko ditu Gipuzkoako Encounterrek.

Topaketa honen helburua «informatikaren inguruko ideia, esperientzia eta jarduerak trukatzeko foroa sortu eta era berean, gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari den informazio-gizarteari bultzada ematea da».

Topaketa honekin, Tolosako Udalak informatikarekin eta informazioaren gizartearekin zerikusia daukaten ekintzak bultzatu, garratu eta aurrera eramaten dituztenei laguntza eskaini nahi die. Horretarako, behar dituzten baliabide tekniko eta euskarri onenak biltzen dituen gunea eskainiko dute. Jaialdi honen antolaketarako, Euskaltel Fundazioa eta Euskalmigaren lankidetzaz izango dute. Baita, Gipuzkoako Foru Aldundiaren, SPRI eta Kutxaren babesa ere.

Euskal Autonomia Erkidegoa da Internet eta teknologia berrien erabilera handienetakoa daukan lurraldea. Bilbon urtero ospatzen den Euskal Encounter beterranoz gain, urtean zehar beste foro batzuk izateko asmoz gazte informatiko askok egindako eskaerei eran-

» ZENBAIT DATU

- **Egunak.** Apirilak 25, 26, eta 27.
- **Tokia.** Usabal kiroldegia.
- **Parte-hartzaileak.** 600, haien ordenagailuekin. Horietatik %92 gizonetzkoak eta %8 emakumeak.
- **Parte-hartzaileen jatorria.** %44 Gipuzkoatik dator.
- **Gainontzekoak.** Euskal Herrikoak nahiz Espainiakoak.
- **Parte-hartzaileen asmoa.** %50a jolastera dator.
- **Parte-hartzaileen batez besteko adina.** 26 urte.
- **Konexioa.** LAN interneteko atzipenarekin 1 Gbps.
- **Azalera.** 2.500 metro².

tzunez jaio zen Gipuzkoako Encounter.

Euskal Encounterrek daukan neurri handiengatik bertan eskaini ezin diren ekintza espezifiko eta interes desberdinetako taldeentzako foro osagarria da Tolosako.

Lehendabiziko ekitaldiak izandako arrakastaren ondoren, Udalak berriro zabaldu du informatika foro hau Tolosa eta Gipuzkoako oso kultura eremua hobetzeko. Gainera aurtengoan, zenbait berrikuntzekin dator ekimenen.

Munduko azkarrenetako

Tolosako Usabal kiroldegian kokaturik, 600 informatika zaletu eta 400 ordenagailutik gora bilduko ditu Gipuzkoako Encounterrek. Gainera, aipatzekoa da, ez dela tokirik geratzen dagoeneko, eta itxaron zerrerdak prestatzen hasiak direla antolatzaileak.

Tolosako, Euskal Encounter baino txikiagoa bada ere, jaialdi be-

rrri honek bestearen baliabide tekniko berberak ditu. Beraz, jaialdi honetara datozenek, orain arte party batean sekula izan ez den telekomunikazio kalitatea eta beste topaketa askotako baino antolatzaile maila hobetoagoaz gozatzeko aukera izango dute. Euskalteko arduradunen esanetan, «Gipuzkoako Encounter izango da Europako 100 gigabyte errealen sarean izango duen era honetako jaialdia. Hau baita komunikazioetan moteldurak saihestuko dituen zuntzeko kableak eta 100 Gbeko switch-eak jartzen lehen».

'Party' senidetuak

Aurten, berrikuntza gisa, Gipuzkoako Encounterren eta Lleida Lan Partyaeren artean, jaialdi berezi bat egingo dute elkarrekin. Lankidetzaz honen bitartez, aldi berean ospatzen diren topaketa biek bilduko dituzte haien sareak 400 kilometroko alde murriztuz, haien artean 1.000 ordenagailu konektatuz. Topaketa bietan bilduko diren 2.000 parte-hartzaileek, besteak beste, *Counterstrike* bezalako bideo-jolasak edo jaialdi bietako talde mistoak izango dituen ginkana informatikoa bezalako lehiaketetaz gozatu ahal izango da.

Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Angel Ros Lleidakoak emango diote hasiera bideo-konferentzia sistema bitartez lotuta dauden jai biei. Senidetzeak Tolosa eta Lleida herriak elkartuko ditu. Abuztuaren Euskal Encounter bera ere elkartuko den eta honetako informatika jaien senti handi baten oinarria da Gipuzkoako Encounterren eta Lleida Lan Partyaeren senidetzea.

Internet eskola

Antolatzaileen esanetan, Gipuzkoako Encounter bezalako jaialdiak, normalean, «ordenagailuen munduan oso sartuta dauden pertsonak hartzen dute parte». Hala, jaialdia jende gehiagorengana heldu dadin, Internet eskolak antolatu dituzte. Hauek, 30 minutuko iraupena izango dute gutxi gora behera, eta Trianguloan atonduko den karpatean eskainiko dituzte. Saioak doakoak izango dira, eta hauek, Interneten erabileraren inguruko hainbat azalpen emango dituzte. Esaterako, prentsa nola irakurri Internet bidez, erostek nola egin bankuek eskaintzen duten Banka online zerbitzua erabiltzen erakutsi...

Kultura eta aisialdia lotuz

Ehunka eta milaka informatika zale edo profesionalen informatikarekin zerikusia daukaten era guztietako jarduerak burutu eta ezagupenak trukatzeko dituzten biltzar jendetsuak dira partyak. Fenomeno hau Norvegia, Dani-

marka edo Alemania bezalako Europako iparraldeko herrialdeetan, 80. hamarkadaren amaieran sortu zen. Egun berriz, mundu osoan zehar ospatzen dira.

Gipuzkoako Encounterrek era honetako jaien bi aldagarri nagusiak partekatzen ditu. Lehen, alde profesionala da. Hainbat lehiaketa, foro eta hitzaldi informatikaren alderik sortzaileena jartzen dute agerian. Tolosako jaialdian musika elektronikoak, bi eta hiru dimentsiotako diseinua, ordenagailu bidezko animazioa edo hardware lehiaketak izango dira. Arlo kulturalena, informatika eta teknologia berrien munduarekin zerikusia daukaten pertsona ospetsuek parte hartuko duten hitzaldiek osatuko dute. Hitzaldi hauek zabalik egongo dira agun horietan Tolosara hurbiltzen diren guztientzako ere.

Bigarren atala da ludikoena, hau sarean burutuko diren jokoan lehiaketetara zuzendurik dago. lehiaketa hauek parte-hartzaileek taldeka jokatu dute batzuk besteak beste. Sareko jokoan lehiaketak maila handiagoko lehiaketen ataria, besteak beste, Gamegune. Nazioarte mailako jokalari antzeko lehiaketa honen finalak Euskal Encounterren jokatzen dira eta parte-hartzaileek atleta olinpiko baten mailan erantzen dute. Gamegunerako klasifikatzeko balio duen amateur jokoan lehiaketa ofiziala dauka Gipuzkoako Encounter-ek. Lehiaketa hauek, partyak irauten dituen egunetan parte-hartzaileek euren alde antolatzen dituzten aldi berean egiten dira.

Etenik gabeko jaialdia

Hasiera ematen zaionetik, Gipuzkoako Encounter-eko jarduerak ez dira amaituko eguzkia sartu arren. Hiru bideo pantaila egongo dira ekitaldi honetako edo aurrekoetako bideoak eta jarduerak etengabe erakusten. Gautxorienean interes berdinak dituzten parte-hartzaileekin harreman berriak egin edo lehiaketen aurkezteko lanak aurreratzeko aprobetxatzen dituzte orduak. Partyaren inguruan kanpaketa toki berezia prestatu da, bertan parte hartzen dutenek ordenagailua utzi eta atsedean hartu dezaten. Gainera, Usabal kiroldegiko instalazioak erabili ahaliko dituzte atsedean hartu, erlaxatu edo igeritokian metro batzuk egiteko.

GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA (ERREFERENTZIA: EE08-GBT)

Donostialdeko enpresa talde batek Giza Baliabideetako Teknikaria behar du. Giza Baliabideak saillean lan egingo du, eta taldeko langileen administrazioaz eta giza baliabideen kudeaketaz arduratuko da.

Eskatzen da:

- Unibertsitate mailako prestakuntza izatea.
- EGA edo balioidea izatea.
- Giza Baliabideetako gaietan esperientzia izatea (nominak, kontratuak, aukeraketak, prestakuntza...).
- Ofimatika programak erabiltzen jakitea.
- Kontuan hartuko da giza baliabideak kudeatzeko programa informatikoak ezagutzea.

Eskaintzen da:

- Iraupen luzeko kontratua.
- Egun osoko lanaldia.
- Lanean berehala hastea.

Bidalji Curriculum Vitae zehatza, apirilaren 22a baino lehen, gizabaliabideak@jarduna.net helbide elektronikora. Ez ahaztu erreferentzia zehatza.

240 haur inguru bilduko ditu Dantzari Txiki Eguna

Kultura » Udaberri dantza taldeak antolatuta du larunbaterako, Arabako, Iparraldeko, Bizkaiko eta Nafarroako dantzariaren.

ERREDAKZIOA

Udaberri dantza taldeak Dantzari Txiki Eguna antolatuta du larunbaterako, hirugarren urtez. Hala euskal dantzak Tolosako kaleak hartuko ditu beste urte batez. 240 haur inguru espero dituzte Udaberrikoek, sei dantza taldekoak: Gasteizko Eguzki Lore taldea (Araba), Galdakaoko Andra Mari taldea (Bizkaia), Nafarroako Otsagabiako eta Agoizko dantza taldeak, Lapurdiko Guria taldea eta Udaberri taldea bera.

Goizean goiz ekingo diote egunari, 10:00etan elkartuko baitira. Hamaiketako egin ondoren, bi zatitan banatu eta kalejirak egingo dituzte. Talde batek, Triangulotik gora abiatuko da Dickens, jubilatua eta Beotibar parean dantzatzuko dutelarik. Bigarren taldeak, berriz, Alde Zaharreko kaleak alaituko ditu, udaletxean, Gorritin, Plaza Berrian eta Triangulon eskainiko dituztelarik emanaldiak. Ondoren, guztiak bat egingo dute.

Eguraldiaren menpe

Euria egingo balu goizeko ekitaldiak bertan behera utziko litzukete eta umeentzako jolasak prestatuko dituzte, oraindik zehazteko dagoen lekuan. Arratsaldeko emanaldia, berriz, Plaza Berrian egingo du zerkausian egingo lukete.



Iaz ere Alde Zaharreko kaleak zeharkatu zituzten dantzari txikiak. N. URIBIU

Afarirako deialdi berezia

Goizeko emanaldien ondoren, haurrak bazkaltzera joango dira. Udaberriko dantza taldeko familia bakoitzak bina ume hartuko ditu etxean, eta bertan bazkalduko dute. Guztiak 16:30ean dute berriro elkartzeko hitzordua, Plaza Berrian, bertan 17:00etan ekingo baitiote emanaldiari; talde bakoitzak 15 minutuz ariko delarik dantzan.

Behingazteek amaitu dutenean, helduek ere izango dute euren txanda, 20:00etan, triki poteoa egingo baitute. Ondoren afaria egingo dute Zerkausian. Anoetako Landatarren emanaldia eta guzti.

«Euren harmonikarekin, fandan goia eta festa ziurtaturik daude».

Afaria joateko deialdi berezia egin nahi izan dute dantza taldeak. «Kanpoko jendea ere anima dadila nahi dugun». Txartelak salgai daude 20 euroren truke Kimetz eta Garikano dendetan.

Dantzari Eguna proposamena

Udaberri dantza taldekoak etengabe dabilta ekintzak proposatzen. Hain zuzen, aurten Dantzari Txiki Eguna batera, helduek eginiko emanaldiekin Dantza Eguna proposatu zioten Udalarri.

» EGITARUA

- **10:00.** Talde guztiak bilduko dira (Gasteizko Eguzki Lore, Galdakaoko Andra Mari, Nafarroako Otsagabiako eta Agoizko dantza taldeak, Lapurdiko Guria eta Udaberri).
- **10:30.** Umeentzako hamaiketakoak.
- **11:30.** Kalejira. Umeak bi zatitan banatuko dira: Triangulotik gora (Dickens, jubilatua eta Beotibar) eta Alde Zaharra (udaletxea, Gorritin, Plaza Berria eta Trianguloa).
- **12:45.** Plaza Berrian elkartuko dira dantzari guztiak, emanaldia eskainiz
- **Ondoren.** Bertako haurren etxean bazkalduko dute dantzari guztiak (familia bakoitzak bi ume hartuko ditu).
- **16:30.** Plaza Berrian elkartuko dira berriro ere guztiak.
- **17:00.** Emanaldia (Taldea bakoitzak 15 minutuzkoa).
- **20:00.** Triki poteoa Plaza Zarretik abiatuta.
- **21:00.** Afaria Zerkausian.
- **Ondoren.** Anoetako Landatarren eskutik, emanaldia.

«Aurten ez da aurrera eramango, baina ea datorren urterako lortzen dugun», azaldu dute antolatzaileek.

«Motibazio handia da lau urte hauetan haur kopurua nola hazi den ikustea»

ARITZ IGLESIAS » Dantzarria eta Dantzari Txiki Eguneko antolatzailea

Kultura » Guztia prest dute Udaberri dantza taldekoak, larunbatean haurrak protagonista izango dituen egunerako.

N. LATABURU

Zeruari begira igaroko du astea Aritz Igleasiak (Tolosa, 1986) ziurrenik, Udaberri dantza taldekoen esku ez dagoen gauza bakarra baita larunbatean Dantzari Txiki Eguna izango duten eguraldia. «Zoro samar dabil, baina ea euririk egiten ez duen», dio gogotsu. **Larunbatean antolatu duzen jaialdirako aspaldi hasi al zineten lanean?**

Hirugarren urtea da Dantzari Txiki Eguna antolatzen duguna eta alde horretatik, lan zailena egin dago, iazkoa hartu eta moldatzea zen kontua. Dena den, duela 2 hila bete inguru hasi ginen beste taldekoekin harremanetan jartzen. Saiatzen gara aurreko urteetan izandakoak errepikatzen.

Aurten ba al dago aldaketarik taldeetan?

Bai, Nafarroako bi taldeak berriak dira. Iaz martxoan egin genuen eta aurten apirilera atzeratu dugunez, talde batzuk ezin izango dute etorri. Andra Mari errepikatu egiten du eta Lapurdikoak ere duela bi urte izan ziren.

Zein izango da zehazki zure lana egunean zehar?

Guztira 16 lagun inguru ariko gara guztia antolatzen. Monitore bakoitzak talde batekin egoteko ardurak hartuko du; ni, esaterako, Galdakaoko taldearekin egongo naiz. Horretaz gain, guztia gainbegiratu dut. Honekin batera materialaz, janariaz, ordutegiaz, arduratuko gara.

Zein da Dantzari Txiki Eguna helburua?

Azken lau urte hauetan dantza ikasi nahi duten umeen kopurua nola hazi den ikustea motibazio handia eman digu eta beraiek ere guttura egoteko moduko zerbaitez antolatzea egoki iruditu zitzaigun. Emaitez ona izan da.

Nekeza al da guztiaz arduratzea?

Laguntzarik gabe egingo genuke

guztia egin. Esaterako, haurren familek ez balute kanpoko umeak etxean bazkaria emateko ardurak hartuko, ezingo genituzke hainbeste haur gonbidatu.

Zerbaitez berri ikusteko aukera izango al da aurten?

Bai, gauza bereziak izango dira; adibidez, ikasturte hasieran marrazki lehiaketa bat egin genuen. Marrazki irabazlearekin txapelak eta zapiak brodatu ditugu eta haur guztiak jantziko dute. Polita izango da ume guztiak txapelarekin eta ikustea. Halaber, amaieren txikienez izan ezik, guztiak makil txiki dantza eskainiko dute. Ikusgarria izango da guztiei bi makilekin dantzan ikustea.

Urduki al daude gazteak?

Bai, baina gogo handiz prestatzen dugu guztiok eguna.

Zuen umeek zer dantzatzuko dute?

Guk Euskal Herriko dantza mota guztiak erakusten dizkiegu, baina Bizkaiko, Arabako, Iparraldeko eta Nafarroako dantzariak daudenez, Gipuzkoako dantzak dantzatuko dituzte larunbatean.

Egunaren ondoren, indera gertatu al zaizue gero zuen erromerirako?

Bai, bai... Hori izango da hoberena. Nolabait, helduen txanda izango da, parrandarako eta ondo pasatzeko txanda. Erromeriarekin, aforriekin, ... Giro polita sortu nahi dugu eta dantza taldekoez gain, kanpoko jendea ere etortzea gustatuko litzaziguke, festan parte har dezan.

Zer egin behar du joan nahi duenak?

Erraza da, txartelak salgai daude dagoeneko Tolosako Garikano eta Kimetz dendetan. Anoetako Landatarren eskutik, jaigiroa ziurtaturik dago.

txokoa **h**

4 sarrera pare

zozketatuko ditugu!

deitu eta eskuratu

Europako errekopako eskubaloia kanporaketa

AKABA BERA BERA
Rulmentul Urban Brasov
LARUNBATA
APIRILAK
19 - 16:30
Donostiako Bidebieta Kiroldegian



berabera
EMAKUMEZKO ESKUBALOI TALDEA



G Gutunak

Andoni Iturzaetari, errespetuz eta harriduraz

Noa abeslari israelarraren kontzertuigarara eta aurreko egunetan eragin duen hika mikaren hari-zenbait hausnarketa plazaratu nahi genituzke. Ez gara eztabaidaren mamira joango, izan ere, batzuk eta besteek argi adierazi dute euren eritzia eta norberak badu erabakitze argudiorik. Hala ere, Andoni Iturzaetak Tolosako Udaleko kultura batzordeko lehendakari moduan esandakoak gure harridura piztu duela aitortu behar dugu.

Iturzaeta jaunaren aburuz, Noa-ren aurka antolatatu den boikota eta oraindik orain zenbait euskal musikarik jasaten dutena pareka daitezke. Hau da, Euskal Herriaren askapen prozesua eta Sionismo kolonialista parez jar daitezke. Beraz, eta simetria berberarekin jarraituz, Andoni Iturzaeta jauna modu «baketsu eta demokratikoan» palestinarren euren lurretatik bidali, ogibidea ukatu eta elikagai zein sendagairik gabeko heriotzara kondenatzen dituen «sionista demokrata» litzateke. Ezta?

Bide batez, ez al du Iturzaeta jaunak euskal musikariengatik erakusten duen ardurak «oportu-

nismo» kutsu nabarmena? Entzun al dugu inoiz kultura batzordeko lehendakariagure kultur eragileak Españatik datozen erasoetatik babesten? Zergatik orain? Zenbat aldiz kontratatu ditu orainburua zuzitzeko baliatu dituen talde horiek?

Harridura sortzen digu zenbait abertzalek, hain guay azaldu nahian, egin dezaketen ridikuloaren tamainak. Hain dute barnera-eta ezker abertzalearen aurkako diskursoa, ustez defendatzen duten helburu estrategikoa bera, Euskal Herriaren askapena, imperialismo basati eta hiltzaileenarekin parekatzea iristen bait dira. «Demokratik eta biolentoak» diskursoaren amua hain sakon irentsi dute, zapaltzaileak eta zapalduak lotsarik gabe nahasteko gauza bait dira. (Joxe Azurmendi filosofo zegramarraren izen bereko liburua gomendatuko genuke)

Iturzaeta jaunak «helburuak birtartekoak justifikatzen ditu» esaldiari buelta eman eta «bitartekoak helburuak justifikatzen ditu» eman nahi du aditzera. Bere aburuz, prozesu historikoak ez dira biltzen duten helburuaren zilegitasunaren arabera bereizten, erabiltzen duten bitartekoaren arabera baizik. Baina horretarako, ezinbesteko zaio zapaltzaileak erabil-

tzen duen bortizkeria ezkatutzea, edo gutxienez, ahaztea.

Mundu osoan zehar, nazioak ukatu eta zapaltzen dituzten Estatu boteretsuek, herri horien aurka ezartzen duten biolentzia, egiturazkoa eta fisikoa, ezkatutzeko ahalegin itzelak egiten dituzte, eta askotan lortu ere bai. Era askotako adibideak jar daitezke: Palestina, Txetxenia, Sahara, Irak edota Tibet, besteak beste. Aldiz, herri horiek erantzun moduan erabiltzen duten biolentzia desitxuratu eta kriminalizatu egiten dute, «terrorista» izenpean.

Garatza horiek konpontzeko arazoaren erroetara joan behar da eta ardurarik haundiena zapaltzailearena da beti, boteretsuarena. Ezinbestekoa da bialdeek elkar haintzat hartzea eta elkarriketa-aren bidez herri horietan egoera demokratikoak ezartzea, non eskubide guztiak, kolektiboak eta norbanakoarenak, errespetatuak izango diren. Horregatik, alde bakoitza gaitzespenak ez du inoiz bakea ekarriko munduko gune gatazkatsu horietara. Eta printzipio horrek mundu osoarako balio du, baita Euskal Herrirako ere.

Bestetik gabe agur, Iturzaeta jauna.

Eider Elduain eta Hektor Espin.

Tolosako hautetsi independentistak

Bi bertso afari izango dira asteburuan

Kultura » Asteasun etzi izango da, ostiralarekin eta Amasa-Villabonako saioa larunbatean izango da.

ERREDAKZIOA

Bertsoa protagonista izango da asteburuan eskualdean. Izan ere, bi bertso afari izango dira.

Lehenengoa, etzirako, ostirala, antolatuko dute Asteasuko Aitzondo Elkarteak, 21:00etatik aurrera.

Bertsolariak Jexumari Irazu eta Iker Zubeldia izango dira. Ber-

taratu nahi duenarentzat txartelak salgai jarri dituzte Iturri-Ondo eta Patxine tabernetan, bihar arte, 20 euroren truke 615708732 telefono zenbakian ere izena emateko aukera dago. Antolatzaileek afaria eskualdeko herritar guztientzat irekia dela azaldu nahi izan dute.

Eta larunbatean, Amasakoan txanda izango da da, izan ere, bertako Kultur Etxean ere bertso afaria antolatuko dute. Iker Zubeldiaren bigarren saioa izango da, oraingo honetan Andoni Egaña izango du lagun. 20:30ean emango diote hasiera bertso afariari. Txartelak salgai jarri dituzte Iturri-Goxo jate-txean.

Altuna txapelkunorde urdaiazpikoa mozten

ERREDAKZIOA

Madriren egiten ari diren Nazioarteko Gourmet Azokaren baitan hainbat lehiaketa antolatuta dituzte, eta horietako bat da herenegun izan zen Urdaiazpiko Moztaile-

na. Bertan Iñigo Altuna tolosarra izan zen txapelkunordea. Adituen arabera, mundu mailako txapelketak gisa ezagutzen da Madrilgoa, beraz, aintza hartzeko moduko sarialortu du.

Tolosaldeko sei herri ariko dira Herriarteko Pilota Txapelketan

Kirola » Amasa-Villabona, Amezketa, Asteasu, Berastegi, Bidegoian eta Lizartza dira eskualdeko ordezkariak.

ERREDAKZIOA

Gaur Miramonen (Donostia) Herriarteko Pilota Txapelketaren aurkezpen ekitaldia egingo dute. Bertan, aurkezpenaren ondoren txapelketan parte hartuko dutenen arteko kanporaketen zozketa egingo dute.

Tolosaldeko ordezkariak ere izango dira bertan eta parte hartuko duten herriak, hain zuzen, hauek dira: Amasa-Villabona, Amezketa, Asteasu, Berastegi, Bidegoian eta Lizartza. Hauek guztiak eskuz ariko dira. Guztira 26 herritako pilotariak jokatuko dituzte partidak.

Tolosakoak, zesta puntan ariko dira

Zesta puntan, berriz, Tolosak hartuko du parte beste hiru herrirekin batera: Donostiarekin, Mutrikurekin eta Zumaiarekin, hain zuzen ere.

hitza

elastiko berriak salgai
haur, gazte eta helduentzat

elastikoarekin
poltsa opari!




Tolosako HITZaren bulegoan eskuragarri.

hitza®




hitza®



Harpidedunentzat

%25
merkeago



Joxe Arregi plaza Pasmus izango da, Udalaren erabakia dela medio

Zizurkil » EAJK, EAK, PSEK, PPK eta EBk onartu dute aldaketa; 'Totto'-ren oroitarria eta plaka ere kendu egingo dute.

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak herenegun iluntzean egindako osoko bilkuran Joxe Arregi eta Jose Luis Geresta *Totto*-ri eskainitako bi plazaren izenak aldatzeko erabakia hartu zuen aho batez. Segurtasun neurri handien artean eta herriko hormetan EAJren alkatearen eta PPren zinegotziaren aurkako pintadak irakurri zituzteela egin zen bilkura, ateak itxita. Joxe Arregi plaza hemendik aurrera Pasmus izango da, eta goikoak ez du izenik izango. Bi herritarren omenez dauden monolito eta izenak kendu egingo dituzte.

Legez kanpo utzitako EAE-ANVren zerrendako lehen postuetan aurkeztu ziren hautagaiek udal txetan sartzen utzi zituzten, baina herritar asko kanpoan geratu, 90 inguru: Ertzaintzak sarrera galarazi zien. PPren zenbait ordezkari ere agertu ziren osoko bilkura: Maria Jose Usandizaga Gipuzkoako PPren presidentea eta Regina Otaola Lizartzako alkatea, esaterako.

«Biktimen sentsibiltatea erasotzen zuten»

Alderdi guztiek onartutako mozioak dioenez, bi plazaren izenak «biktimen sentsibiltateari eraso» egiten diote eta hortaz, izen aldaketa «bidezkoa» da, gaur egun udalbatza osatzen duten alderdien «irizpide ideologikoak» ezberdina baitira bi plazaren izendapena erabaki zutenekiko aldean.

EAJren alkate Marian Lazkanok egin zuen bi lekuei izena aldatzeko proposamen formal, PPK eta PSE-EEk «norabide horretan» egindako eskaera bati erantzunez, eta babestu ere egin zuen alderdi jeltzaleak. Horrela, mozioaren aldeko botoa eman zuten EAJren bost zinegotziek, EAren biak, eta PSE-EE eta PPren banak eta Ara-

lar-EB koalizioak duen zinegotziak. Bozketaren ondoren, ohar baten bidez Aralarrek koalizioa hautsi duela jakinarazi zuen, «biktimen alde bat bakarrik» kontuan hartzen duela arrazoituta. EAE-ANVren zerrendak baliogabetu egin zituen Espainiako justiziak azken udal hauteskundeetan, eta beraz, ezker abertzaleak ez dauka ordezkari ofizialik Zizurkilten.

Ezker abertzaleko bi ordezkariak agiri bat irakurri zuten osoko bilkuran, izen aldaketa Zizurkilgo herritarrei egindako «iseka» dela eta Arregi eta Geresta ere biktimak direla adierazteko. Erabakia «ez du sufrimendua besterik ekarriko, ez du ezer konponduko. Biktima gehiago eragingo dituen probak zio bat besterik ez da Udalaren erabakia», adierazi zuen ezker abertzaleak osoko bilkuraren ondoren.

Indarkeriaren biktimak

Joxe Arregi torturatutako hil zen Madrilen 1981ean, Guardia Zibila-ren komisaldegian, atxilotua izan eta bederatzigun geroago. «Oso latza izan da», izan ziren bere azken hitzak, 12 de Octubre ospitalean beste atxilotu bati esandakoak. Jose Luis Geresta, berriz, buruan tiro batekin aurkitu zuten hilda Erreterian 1999an. Bertsio ofizialak bere buruaz beste egin zuela esan bazuen ere, auzi medikuaren arabera ez zegoen hori frogatzen zuten aztarnarik.

Herenegun erabakiarekin Paulino Luesmaren eskaerari baiezkota eman dio Zizurkilgo udalak. Kale izendegia eta ideak oroitzeko baliaitza «terrorismoari gorazarre etengabea» egitea dela dio Luesmak.

Horrez gain, Dignidad y Justicia beste salaketa bat jarri zuen «bi plazaren izenak ETaren biktima mespretxatzen dituztela»

E Eztabaida info

Gure webgunean jasotako iritzirik batzuk, iritsitako ordenaren arabera.

- **Esperak.** «Bazen garaia... plazak terroristei? txoratuta gaude ala?».
- **Mikel.** «Euskaldunon gehiengoak soberan daki Joxe Arregi eta *Totto* torturaz erail zituztela. Eta orain honetan, PNVk argi erakutsi du estatuaren errepresioak eragingo biktimak ez dituela errespetatzen. Biktimen inguruko diskurtsoen atzean hipokrita eta



Ezker abertzaleak deitutako elkarretaratzean 90 bat lagun bildu ziren. Erabakiaren ondorengo une bat. N. URIBIZU

arrazoituta, etaildo horretatik Fernando Grande-Marlaskak beste ikerketa bat martxan jartzea ekarri du, biktimen aurkako delitua ote dagoen aztertzeke.

Udal gobernua erabakia

Marian Lazkanok alkateak aurkeztutako arrazoiak irakurri zituen osoko bilkuran: «Euskal gizarteak argi azaldu du indarkeriaren aurka dagoela, bai ETaren izan, bai GAL edo eskuin muturreko taldeena izan, euren jarduketarekin gure herrian normaltasuneko bizikidetzara eragotzen dutelako».

Honela, eta «biktimen egoera arintzeko asmoz», onarturiko ebazpen desberdinen artean, Eusko Jaurilaritzako Osoko Bilkurak «Legezkoa ez den Proposamena onartu zuten, non Udalen aldetik biktimen memoriarentzat iraingarriak izan daitezkeen kale eta plaza haien izenak kontuan hartu eta gogotza egitea iradokitzen den».

Dignidad y Justicia elkarteak eta Miguel Angel Blanco eta Fernando Mugicaren familiarek «plazetako ikurrak eta izenak, eta biktimen sentsibiltateari aintzatasun dute».

Azaldutakoaren aurrean, Gobernuko Taldeak «argi utzi du Zizurkilgo kaleak eta plazek talde terroristak biktimen izena izatearen aurka dagoela».

2008ko otsailean, Zizurkilgo Amnistiaren aldeko batzordeak mozioa aurkeztu zuten herrian Jose Luis Geresta *Totto*-ri ome-

naldi bat eskaintzeko, eta haren omenez monolito bat jartzeko. «Orain honetan ere, 1981ean Joxe Arregirekin bezala, EAJk eta EAK aurkako jarrera azaldu zuten, etakide bat omendu nahi delako, eta erakunde honek azkenaldian buruturiko atentatuaren aurrean, ezaugarri hauetako mozio bat ezin delako onartu».

Azken egunotan «erakutsi du ten jarrera mehatxatzaile eta anti demokratikoa» ere gogoratu zuten, udal txeketa eta inguruetako pintadak direlarik horren guztiaren adierazgarri argiena».

Gobernu Taldeak Raul Vazquez Zizurkilgo PPren zinegotziaren jarrera salatu zuten ere. «Bere harrokeria, erakundearekiko erakutsi duen fedetarra eta leialtasunik eza eragozpen larriak izan baitira gai hau eta beste batzuek normaltasunez tratatu eta ebazteko».

Herritarrek bilkuratik kanpo

«Segurtasun neurriengatik» herritarrek ez sartzen uztea erabaki zuten udal txetan: prentsa ere ez zuten sartzen utzi. 20 bat ertzainek udal txetan ataria ixten zuten bitartean, 90 herritar inguru kanpoan zeuden, elkarretaratzean; komunikabide asko bildu zuten ere.

Mikel Arrastok (EAE-ANV alderdiko zerrendaburua eta alkatea izango zena ilegalizazioa eman ez balitz) herenegun «lotsagarria» izan zela adierazi zuen. «Lotsagarria: pleno batera murrizten dute gaia, eta aurreneko indar poli-

tikoa garetla batzuetan ahaztu egiten zaiela ematen du. Ertzainen kontrol hura pasa behar, azkenean 5 bakarrik sartzeko». Hura salatu zuten: «Elkarrizketa bat izan genuen bilkura honen aurretik, eta herria helburua izango genuela elkarlana bultzatuz». Gaineratu zuten: «honetako ekintzek tentsioa pizten» dutela eta «mamuk berpizten dituela, zauri handi bat berri izrekitzen da: ez dugu jarrera hau ulertzen eta horrela ez goaz inora eta ez du inork irabazten».

Hemendik aurrera, ezker abertzaleak aztertuko du egoera eta erabakia hartuko ditu. «Udalarekin edo gabe lana egingo dugu. Zentzu batean Udalaren jarrera honekin frustratuta sentitzen gara».

» AIPUAK BILKURAN

- **PP.** «Harro sentitzen naiz, gusturaz».
- **PSE-EE.** «Gustura: ez da lotsa pasa behar. Hartu behar zen erabakia hartu da».
- **EAJ.** Irakurketa egin zuen arrazoiak emanez. «Ezker abertzaleak biktima batzuk ahaztu egiten ditu».
- **EA.** EAJekin bat egin zuten.
- **EB-Aralar.** «Ez gaude harro erabakiarekin: honek ez du konponduko egoera. Herrian egon den muntai polizia salaten dugu».
- **Ezker abertzaleak.** «Erabaki honetan tentsioa piztuko da. Honekin ez du inork irabazten».



Mikel Arrastok bilkuratik atera ondoren adierazpenak egiten. N. URIBIZU

Iragarki laburrak

LANA

■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu: 685 22 70 58.



12:00ak aldera hasi ziren erlojua desmuntatzen. N. GARZIA



Ordu laurden batean jada lurrean zen. N. GARZIA



Kamioiean kontuz jarri eta eraman egin zuten. N. GARZIA

Herriko festak bitarte erlojurik ez

Leitza » Udaletxeko erlojua kendu dute, 1940. urte inguruan jarri zutenez geroztik konpondu gabe baitzegoen eta moldatu eginen dute.

NAIARA GARZIA

Gaur goizean herriko plazara hurbiltzen denak, udaletxeari erreparaturaz gero aldaketaren bat nabaritutako du, izan ere atzo goizean Leitzako udaletxeko erlojua kendu zuten. Dagoeneko funtzionatzen ez zenez eta erabat herdoilduta zegoenez, konpontzea erabaki dute eta hori dela eta, zenbait hila-betez herriko udaletxeak ez du erlojurik izanen.

Erlojua atzo kendu zuten arren, konponketa-lanak duela zenbait aste hasi zituzten, Pedro Jose Aizpuru makinaria garbitzen hasi zenean, hain zuzen ere. Horretarako orduak eman ditu udaletxeko gan-

baran lanean. «Makinaria hautsak erabat hartuta zegoen, eta urteen eta hezetan ondoz lo-kaztuta zegoen. Orain nahiko txukun dago eta soinu majoa dauka», dio Aizpuru. «Hori eutsiz gero nahikoa irau dezake».

Erlojua konpontzeko proiektua

Pedro Jose Aizpuruarekin batera, Inazio Azpiroz monteroa eta Leitzako Udaleko langileak jarri zuten martxan proiektu hau. «Alkatearekin hitz egin genuen, erlojua erabat herdoilduta zegoela azaldu genion eta ez zebilela, eta hura martxan jartzeko Pedro Josek bere burua aurkeztu zuela. Alkate-

ak baiezkota eman zigun eta horrela hasi ginen», dio Leitzako Udal langile batek.

Pedro Jose Aizpuru 2 hilabete inguru eman ditu makinaria konpontzen. «Makinaria konpontzen baduzu, honek kanpoko ere konpontzea eskatzen du». Hori dela eta kendu zuten atzo erlojua.

Egitura erabat herdoilduta dagoenez, berria erremontariet eginen dute. Esfera ere izorratuta dagoenez, berri bat jarriko dute. «Nik zeharrargia izatea nahiko nuke, atzealdetik argia jarriko baitiogu gaeuan ikus dadin». Orratzei dagoeniz, aurrena desmuntatu eginen dituzte. «Orratzak politak dira, garbitu ondoren ongi gelditzen badira hor utziko ditugu. Orratzekin batera erlojuaren mekanismoa dator eta hau hagitz herdoilduta dagoenez, dena berrituko dugu».

Ezkilari ere moldaketak eginen dizkiote. «Ezkiak alambre bat zuten eta kendu egin diogu», diote langileek. «Mailua ere kendu egin diogu, konpontzeko, dena herdoilduta jana baitzegoen». Aizpuru azaldu duenez, ezkiak konponduko dute, «goxoago jo dezan». Halere denek argi utzi dute ez dutela erlojua erabat itxuraldatuko.

Giltza ez emateko bidea

Honekin batera, Aizpuru beste aldaketa bat egin nahi dio erlojuari. «Orain arte astero giltza eman behar izaten zitzaion, eta bere kasa mugitzea nahiko nuke hemendik aurrera».

50 urtetik gorako erlojua

Kendu berri duten erlojua 1940. urte ingurukoa zen, eta herritarrek diotenez, Juan Kordauneko omen zuten goraino, apustu bat

egin ondoren. Honela, eskilara bat jarri omen zuten eta bizkarrean erlojua hartu eta goraino igo omen zuten.

Kontuak kontu, atzo, gizonen laguntza beharrezkoa izan zen arren, makinek lan handia kendu zieten eta ez zuten hainbeste izerditu beharrik izan.

Hilabetetako lana

Proiektua martxan jarri dutenek herriko festetarako bukatzeko asmoa dutela azaldu dute, baina alde zurretik hori jakitea ez dela erraza gehitu dute. «Guk festetako jarri nahi dugu. Behin kanpoko egitura izanda errazagoa da lan egitea. Guk orain esfera desmuntatu dugu, berria eskatu... eta gero egitura berria ematen digutenean erlojua goitik behera muntatzeko ere denbora dezente beharko dugu».

Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da
hilberriak-urteurrenak-eskertzak
HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle
ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

BEÑAT IRIBARREN GOENAGA
HAURRA
-Goian bego-

GAUZA BAKARRA ULERTU
TA DAKIGU JAKIN,
BETI IZANGO ZARELA
BEÑAT ZU GUREKIN.
DONOSTIA,
2008ko apirilaren 16ean

Asun AIERBE MENDIZABAL andrea
Galtzaundi Euskara Taldearen lehenengo lehendakari,
TOPAGUNEA, Euskara Elkartearen Fererazioaren sortzaile.
Apirilaren 15ean zendu zen,
Tolosan eta Toloserrian zure indarraren taupadak, sendotu ditu Euskalgintzaren zuztar, enbor eta adarrak. Zure kemenak eman baitigu bizirauteko indarra; betirako ba izanen gara uzarturik zu, gu eta euskara.
Adiorik ez
Galtzaundi Euskara Taldea
galtzaundi

AXUN AIERBE MENDIZABAL
ANDREA
-Goian bego-

IBARRAN
2008ko
apirilaren 16ean
IBARRAKO UDALEKO ALKATE
ETA ZINEGOTZIAK

AXUN AIERBE MENDIZABAL
ANDREA
-Goian bego-

«Non hago, zer larretan EUSKARAREN artzaina mendi hegaletan gora orotzapenen gerora ihesetan joan hintzana.»
IBARRAKO UDALEKO
ZURE LANKIDEAK
IBARRAN
2008ko
apirilaren 16ean

AXUN AIERBE MENDIZABAL
Atzo hil zen, 39 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-
Ama: M^{te} Carmen Mendizabal (Agapito Aierberen alarguna); osaba-izebak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.
Haren arimaren alde otituz bat eskatzen dizute eta arren etor zaitezela GAUR ASTEAZKENA, arnasaldeko ZAZPIETAN, Ibarako SAN BARTOLOME parroki elizan, gorputza bertan dela, egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Helbidea: Zaldune auzunea 7, 1.
Oharrak: Gorputz bella Tolosako Funeraria Vascoagadaren Tanatorioan egongo da asteazkeneko 09:00etatik aurrera.
Errosario Santua 18:45ean errezatuko da.
IBARRAN
2008ko
apirilaren 16ean



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Zizurkil.** *Galtzagorri* txotxongilo saioa 3 eta 9 urte artekoentzat Atxulondo kultur etxean 15:15ean.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Naturaldia jardunaldiak: *Giro onarekin eraikitzea* hitzaldia Kultur Etxean 20:00etan Emilio Miguel Mitre arkitektoarekin.

Deialdiak

■ **Ibarra.** Maiatzaren 7an Izaskungo erromerian egingo den bazkari-rako txartelak, Bizi nahi elkartearen 25 eurotan (bazkide ez direnek 30 euro).
■ **Alegia.** Ekainaren 1erako artisautza azoka ari dira prestatzen. Parte hartu nahi duenak materiala (egurra, zumea, saskiak, koadro, margolanak, eskualanak, larrua...) Inaxio Begiristain kultur eta kirol etxera eraman dezala (943 654698).

Ikastaroak

■ **Tolosa.** Eragimenez gidatzeko ikastaroa doan Kultur Etxean, Naturaldia jardunaldien barruan. Autoiari etekin handiena ateratzeko, energia gasturik txikienarekin.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurutzun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aizkardik egun pasa antolatu du

VILLABONA ● Aizkardi mendi elkar-teak irteera antolatu du hilaren 20an, igandearrekin. Oraingoan Mañariatik abiatu eta Aramozko mendizerra zeharkatuko dute. Bidean Leungana (1009m) eta Mu-garra (964m) tontorrek igogio dituzte, Artaunen amaituz. Zazpi ordu inguru behako dituzte ibilbidea burutzeko. Izen-ematea 943 694458 zenbakian egin daiteke, bihar izango delarik azken eguna.

A Agurrak



Urte askoan!

Unai (Ibarra).

Gaur urtebete. Muxuak etxe-koen partetik.



Zorionak ponpoxo!

Ireber Iglesias (Ibarra). Gaur 3 urte. Txokolatzeko muxuak Eloy, Zuriñe eta Saigotsen partetik.

agurrak

urtebetetzak - urrezko ezteiak ezkontzak - jaioberriak jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

argazki lehiaketa

h

Bozkatzeko argazki lehiaketa

Bozkatzeko argazki lehiaketa

Bozkatzeko argazki lehiaketa



BOZKATU gustukoena!

